

ZIENTZIA ESPERIMENTALAK

Ixone Romero Larreta

ELIKADURA
OSASUNTSUA HAUR
HEZKUNTZAN

TFG/*GBL* 2014

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Grado en Maestro de
Educación Infantil /
Haur Hezkuntzako Irakasleen
Gradua

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Infantil

Gradu Bukaerako Lana

Trabajo Fin de Grado

Elikadura osasuntsua Haur Hezkuntzan

Ixone Romero Larreta

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Ixone Romero Larreta

Izenburua / Título

Elikadura osasuntsua Haur Hezkuntzan

Gradu / Grado

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales

Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Patxi Xabier Saez de Egilaz

Saila / Departamento

Psikologia eta Pedagogia Saila / Departamento de Psicología y Pedagogía

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2013/2014

Seihilekoa / Semestre

Udaberrikoa / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituenak. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan osoan zehar garatzen dira oinarrizko prestakuntzako moduluak, lana egiterako orduan graduan zehar ikasitakoa kontuan hartu delarik, besteak beste, natur zientziaren inguruko ezagutza orokorrak, naturarekiko kontaktua, elikadura osasungarria izatea...

Didaktika eta diziplinako moduluak bidea eman dit natur zientzien inguruko ezagutza eta irakaskuntzak Haur Hezkuntzan duen garrantzia isladatzeko, ideia hau nire lanaren oinarria izan delarik.

Halaber, Practicum moduluak eskolan fruten inguruko proiektu bat praktikan jartzeko aukera eman dit. Honen harira, elikadura osasuntsuaren inguruko informazioa zabaldu eta ezagutzak landuz.

Azkenik, aukerako moduluak planteaturiko proiektuaren nondik norakoak erakutsi dizkit. Edukinak haurren nahi eta beharretara egokituz eta beraien interesak kontuan harturik jarduera ezberdinak programatuz.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko da "Esparru teorikoa" atala, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Lan hau egiteko sortu dudun proposamenarekin Lesakako Irain Eskola Publikoan (Nafarroa) fruten inguruko proiektua aurrera eramatea da helburua. Bortzirietako bailarak landa-eremu handiak dituen arren, gaur egun, jada ez dago nekazaritzarekin kontaktu zuzenik. Alde batetik, etorkin asko daudelako eta bestetik, bertako gehiengoak baserrietatik herrian bertan bizitzera pasa delako.

Halaber, oraindik badaude baserrietan bizi direnak edota familia baserritarra dutenak, horregatik, ideia hau aurrera eramateko ingurune egokia dela uste dut. Gainera, eskolan horrelako proiektu bat jorratzeak haurrekin elikadura lantzea ahalbidetzen digu. Honekin gure osasuna zaintzeak duen garrantzia landuz eta kontzientziazio prozesu batean murgilduz.

Aipaturiko guztia lantzeko, esan bezala, fruten inguruko proiektu bat sortu dut. Bertan, jarduera ezberdinen planteamenduaren bidez, hala nola, baratzea, elikadura, ohitura osasungarriak... aurrez planteaturiko guztia aurrera eramango dugularik.

Hitz gakoak: eskola; ohiturak; elikadura; osasuna; frutak.

Resumen

Con la propuesta diseñada para realizar este trabajo, el objetivo es llevar a cabo un proyecto sobre frutas en la Escuela Pública Irain de Lesaka (Navarra). Aunque el valle tenga muchas zonas rurales, hoy en día, ya no hay contacto directo con la agricultura. Por un lado, porque hay muchos inmigrantes y por otro lado, porque la mayoría de los habitantes ya no vive en caseríos.

Pero, todavía hay quien vive en el caserío o quien tiene familiares agricultores, por eso, creo que es un buen entorno para llevar a cabo esta idea. Además, este proyecto posibilita trabajar la alimentación, la importancia de cuidar la salud e incluso sumergirnos en un proceso de concienciación.

Para realizar todo lo mencionado y como he comentado anteriormente, he creado un proyecto sobre frutas, que con el planteamiento de diferentes actividades, así como, el huerto, la alimentación, hábitos saludables... podremos llevar a cabo dicha idea.

Palabras clave: escuela; hábitos; alimentación; salud; frutas.

Abstract

With the proposal designed to make this work, the goal is to carry out a project in the Public School Irain of Lesaka (Navarre). Although the valley has many rural areas, nowadays, there is no direct contact with agriculture. On the one hand, because there are many immigrants and on the other hand, because most of people no longer live in farms.

But there are still those who live in homesteads or they have family farmers, therefore, I think it's a good environment to carry out this idea. In addition, creating this project enables us to work feeding, the importance of health care and even to dive into a process of awareness.

For all of the above, and as I said before, I have created a project of fruits, with the approach of different activities, as well as the kitchen-garden, food, healthy habits... these activities will help us to carry out this idea. can carry out this idea.

Keywords: school; habits; nutrition; health; fruits.

Aurkibidea

1. Aurrekariak	1
1.1. Haur Hezkuntzaren printzipio orokorrak	1
1.2. Haur Hezkuntzaren helburuak	1
1.3. Haur Hezkuntzaren xedeak	2
1.4. Haur Hezkuntzaren arloak	2
1.4.1. Ingurua ezagutzea	4
1.4.1.1. Helburuak	6
1.4.1.2. Edukiak	7
1.4.1.3. Ebaluazio irizpideak	8
1.5. Haur Hezkuntzaren edukiak eta curriculum	10
1.6. Haur Hezkuntzaren ebaluazioa	11
1.7. Ingurumen hezkuntzaren helburuak	11
1.8. Nola irakatsi zientzia Haur Hezkuntzan	12
1.8.1. Jarduera motaren garrantzia	12
1.9. Zientiaren irakaskuntzarako jardueren ezaugarriak, motak eta funtzioa	13
1.9.1. Ikaskuntza prozesuan zehar jardueren sekuentziazioa	14
2. Esparru teorikoa / Marco teórico	16
2.1. Reggio Emilia	17
2.1.1. Los principios de Reggio Emilia	17
2.1.2. Qué suponen estas escuelas	19
2.1.3. Metodología	19
2.1.4. Objetivos que pretende	20
2.1.5. Los ideales que se persiguen	21
2.1.6. Los educadores	21
2.1.7. El proyecto	21
2.1.8. La estructura	22
2.1.8.1. Aspectos de la estructura	22
2.1.9. Dentro de las aulas	24
2.2. Reggio Emiliako eskola	24
2.2.1. Reggio Emilia: proiektu filosofiko pedagogikoa	25
2.2.2. Nor da, zer da haurra?	26
2.2.3. Haurra aberatsa eta gaitua da, teoriak eraikitzeke gai delako	28
2.2.4. Proiektuak	30
2.2.4.1. Giroa	31
2.2.4.2. Tailerra eta tailerista	32
2.2.5. Loris Malaguzzi	34
2.3. Aprendizaje basado en proyectos	35
2.3.1. Estrategias de aprendizaje	36
2.3.2. Aprendizaje basado en proyectos	36
2.3.3. Descripción del método	37
2.3.4. Antecedentes	37
2.3.5. Objetivos	38
2.3.6. Beneficios de su implementación	38
2.3.7. Características	39

2.3.8. Fases para implementar un aprendizaje basado en proyectos	40
2.4. Proiektuen metodologia	40
2.4.1. Metodologia honen funtsezko printzipioak	41
2.4.2. Proiektuen aplikazioa Haur Hezkuntzan	42
2.4.2.1. Nola landu proiektu bat gelan	42
3. Proiektu baten proposamena: Frutak	45
3.1. Sarrera	45
3.2. Datu orokorrak eta taldearen ezaugarriak	46
3.3. Helburu orokorrak	46
3.4. Helburu didaktikoak	47
3.5. Edukiak	48
3.6. Baliabide materialak	48
3.7. Giza baliabideak	49
3.8. Denbora	49
3.9. Espazioa	49
3.10. Metodologia eta aniztasunaren trataera	50
3.11. Jardueren sekuentziak	50
3.12. Jardueren garapena	51
3.12.1. Lehenengo eguna	51
3.12.1.1. Lehenengo saioa: Frutak ezagutzen	51
3.12.1.2. Bigarren saioa: Frutak ezagutzen	52
3.12.2. Bigarren eguna	53
3.12.2.1. Lehenengo saioa: Fruta ezagutu ondoren dastatuko dugu?	53
3.12.3. Hirugarren eguna	54
3.12.3.1. Lehenengo saioa: Frutak margotzera!	54
3.12.4. Laugarren eguna	56
3.12.4.1. Lehenengo saioa: Abesten	56
3.12.5. Bostgarren eguna	57
3.12.5.1. Lehenengo saioa: Ipuina kontatzen	57
3.12.5.2. Bigarren saioa: Fruta-fruta	58
3.12.6. Seigarren eguna	59
3.12.6.1. Lehenengo saioa: Tailer txikia	59
3.12.7. Zazpigarren eguna	60
3.12.7.1. Goiz osoa: Baratzera txangoa	60
3.12.8. Zortzigarren eguna	61
3.12.8.1. Lehenengo saioa: Fruta tailerra	61
3.12.9. Bederetzigarren eguna	62
3.12.9.1. Goiz osoa: Azokara!	62
3.12.10. Hamargarren eguna	63
3.12.10.1. Lehenengo saioa: Zukuak egiten	63
3.13. Ebaluazioa	65
3.13.1. Ebaluatzeko irizpideak	65
3.13.2. Ebaluatzeko prozedurak, teknikak eta tresnak	66
3.13.3. Ikas-prozesuko helburuen betetze maila	66
3.13.4. Jardueren egokitasuna	66
3.13.5. Metodologia eta aniztasunaren trataera	66

3.13.6. Ikasleen inplikazioa eta motibazioa	67
3.13.7. Gelako giroa	67
Ondorioak	68
Erreferentziak	71
Eranskinak	72
I. Eranskina	72
II. Eranskina	72
III. Eranskina	72
IV. Eranskina	73
V. Eranskina	84
VI. Eranskina	85
VII. Eranskina	86
VIII. Eranskina	87
IX. Eranskina	88
X. Eranskina	89
XI. Eranskina	90

1. AURREKARIAK

Gradu bukaerako lan hau egiteko, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko curriculum hartu dut kontuan. Honek, 2009an ezarritako Foru Dekretuan oinarritzea ekartzen duelarik. Honetaz gain, oso presente izan dut curriculum honetan ingurunea ezagutzeko arloan aipatzen dena. Hau horrela, Haur Hezkuntzako curriculumean zehazten diren printzipio orokorrak, helburuak, xedeak, arloak, edukiak eta ebaluazioa azalduko dira.

Gainera, lanean zehar proposaturiko proiektua planteatzeko, ingurumen hezkuntzaren helburuak, natur zientziak Haur Hezkuntzan nola irakatsi eta zientziaren irakaskuntzarako jardueren ezaugarri, motak eta funtzioa zein diren jakitea ezinbestekoa dela ikusi dut.

1.1. Haur Hezkuntzaren printzipio orokorrak

- Haur Hezkuntza sei urte bitarteko haurrei berariaz erantzuteko hezkuntza-etapa da.
- Etapa hau bi ziklotan antolatzen da: lehenbizikoa hiru urte bitarteko haurrentzat da, eta bigarrena, hirutik sei urte bitartekoentzat.
- Haur Hezkuntza borondatezkoa da. Haur Hezkuntzaren bigarren zikloa dohainik da.

1.2. Haur Hezkuntzaren helburuak

- Haur Hezkuntzaren xedea da haurrei garapen fisiko, afektibo, sozial eta intelektuala lortzen laguntzea.
- Bi zikloetan arian-arian arreta emanen zaio garapen afektiboari, mugimenduari eta gorputz kontroleko ohiturei, komunikazio eta hizkuntza arloko adierazpenei, bizikidetasun eta harreman sozialeko jokabide oinarritzoei, eta halaber, ingurumenaren ezaugarri fisiko eta sozialen ezaugarriak hautemateari. Gainera, lagundu egingen zaie haurrei beren irudi baikor eta orekatua lantzen eta beren adinerako egokia den autonomia pertsonal egokia lortzen.

1.3. Haur Hezkuntzaren xedeak

Haurrek honako helburu hauek lor ditzaten balioko du Haur Hezkuntzak:

- Beren eta besteen gorputza eta ekintzarako ahalmenak ezagutzea eta desberdintasunak errespetatzen ikastea.
- Beren ingurune familiar, natural eta soziala behatu eta aktiboki aztertzea eta hor Nafarroaren ezaugarri berezietako batzuek ohartzea.
- Pixkanaka-pixkanaka autonomia lortzea bere ohiko jardueretan.
- Bere gaitasun afektiboak garatzea.
- Besteekin harremanetan sartzea eta pixkanaka bizikidetasun eta harreman sozialeko jokabideak bereganatzea, hala nola, gatazkei konponbide baketsuak aurkitzen ohitzea.
- Komunikaziozko trebetasunak garatzea hizkuntza, adierazpide eta irudikapenerako bide desberdinetan.
- Abilezia logiko-matematikoaren, irakur-idazketaren eta mugimendu, keinu eta eritmoaren hastapenak bereganatzea.

1.4. Haur Hezkuntzaren arloak

Haur Hezkuntzaren helburu nagusia ikasleen garapen fisikoa, afektiboa, soziala eta intelektuala bultzatzea da, familiekin lan estuan egonik. Hezkuntzaren etapa honetan, garapen pertsonalaren eta sozialaren oinarriak finkatu eta ikasle guztientzat funtsezkotzat hartzen diren gaitasunak garatzeko bidea ematen duten ikasketak barneratzen dira.

Etapa honen bigarren zikloan garrantzi berezia ematen zaie ikaskuntza jakin batzuei, alegia, ikasleek beren buruari, ahalmenei eta une bakoitzean eskura dituzten baliabideak modu autonomo samarrean erabiltzeko duten trebetasunari buruz dituzten ezagutza, balorazio eta kontrola garatzeko balio duten horiei.

Prozesu horretan garrantzitsua da ohiko jarduerak erantzunkizun, autonomia eta ekimen maila egoki batez egiteko, espazioak eta materialak modu egokian erabiltzeko eta ikasgelan egiten diren lanak burutzeko trebetasunak bereganatzea.

Inguruarekiko elkarreraginek, mugimenduen kontrol gero eta handiagoak, beren ahalbideez eta mugez ohartzeak eta besteengandik bereizteko prozesuak bidea

emanen diete pixkanaka helduengandik independentzia lortzeko. Horrek guztiak "ni neu izaten ikastea eta egiten ikastea" ahalbidetzen die hurrei, eta autonomia zein garapen pertsonalaren oinarriak finkatzen ditu haurrak.

Autonomia eskuratzeko prozesu horretan, ahozko hizkuntzak aparteko garrantzia du, izan ere, ziklo honetan hasten baita modu sistematiko batez hizkuntzaren eskurapena izaten, familiaren esparrua zabaltzen eta ikasleen komunikaziorako gaitasunak izaten, hau dena garatzeko bidea ematen duten era askotariko testuinguruen bidez.

Baina, ez dugu ahaztu behar beste hizkuntza batzuk ere badirela, adibidez, gorputzarena, artistikoa (bai plastikoa, bai musikala), ikus-entzunezkoa eta matematikoa, adierazpen ahalbideak aberasteko oinarrizkoak direnak eta komunikatzeko gaitasuna garatzeko laguntza ematen dutenak.

Era berean, trebetasun eta gaitasun indibidualen garapenak eta inguruarekiko nahiz beste pertsonetikiko interakzioek pentsamendua garatzeko bidea ematen diete, pentsatzen eta ikasten irakasten diete (pentsamendu kritikoa, erabakiak hartzea, arazoak ebaztea, baliabide kognitiboak erabiltzea, eta abar), eta, gainera, gerorako ikaskuntzen oinarriak finkatzen dituzte.

Ikaslearen ingurua zabaltzen da ziklo honetan eta, horren ondorioz, esperientzia berriei aurre egin eta orain arte ezagutzen ez zituen elementuekin eragiteko beharrea ikusten du haurrak bere burua.

Harreman sozial zabal eta aberatsagoak ezartzen ikasten du, aniztasunaren kontzientzia hartu eta harenganako jarrera positiboak garatzen ditu. Horrekin guztiarekin, besteekin harremanetan jartzen hasten da eta elkarrekin bizitzeko arauak errespetatzen ikasten du, honekin batera, laguntza ematen zaio gizartean bizitzeko gaitasuna garatzeko.

Haur Hezkuntzaren bigarren zikloaren hezkuntza-edukiak haurren esperientziaren eta garapenaren esparru berekietan antolatzen dira. Bi zikloetako lan metodoak esperientzietan, jardueretan eta jolasean oinarrituko dira, eta afektu eta konfiantza giroan aplikatuko dira, haurren autoestimua eta integrazio soziala indartzeko.

Honako hauek dira Haur Hezkuntzaren bigarren zikloaren arloak:

- a) Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala.
- b) Ingurunea ezagutzea.
- c) Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena.

Arlo hauek jarduera-esparrutzat hartu behar dira, era guztietako ikasbideak (jarrerak, prozedurak eta kontzeptuak) bereganatzeko eremutzat, zeinak baliagarri izanen baitiren haurren garapen pertsonalerako, eta mundua interpretatzeko hurbilketarako eta bertan modu eginkorrean parte hartzeko lagungarri.

1.4.1. Ingurua ezagutzea

Jakintza eta esperientzia arlo honekin haur ingurua osatzen duten testuinguru desberdinak aurkitu eta irudikatzeko prozesua erraztu nahi zaie ikasleei, eta bide eman testuinguru horietan gogoetazko jarrera parte-hartzaile batez integratzeko.

Arlo honetako edukiek zentzua hartzen dute gainerako arlokoen osagarriak diren heinean, eta proposamen didaktikoetan gauzatzerakoan ekintzaren eta ikasketen globaltasunetik abiatuko da. Adibidez, ezin da ingurua ulertu hizkuntza desberdinak erabili gabe, eta, halaber, mugimendu orientatuak egiteko beharrezkoa da nork bere gorputza eta haren kokapen espaziala ezagutzea.

Ingurua zabaldu eta aldatu egiten da ikaslea eskolan hasten denean, eta ikasleak inguruarekin dituen harremanek aukera ezin hobeak izan behar dute munduari buruzko ezagutzak handitu eta abilezia, trebetasun eta gaitasun berriak garatzeko.

Hortaz, ingurua errealitate bat da; ikasleak bertan ikasi eta hari buruz ikasi behar du. Errealitatea ezagutu eta haren funtzionamendua ulertzeko, haurrak bere inguruan dauden objektuen eta gaien jokabidea eta ezaugarriak aztertzen ditu: inguru fisikoaren elementuekin jardun eta harremanak ezartzen ditu, elementu horiek aztertu eta identifikatzen ditu, sortzen dituzten sentazioez ohartzen da, haietan dituen eraginaren ondorioei aurrea hartzen die, haien arteko berdintasunak eta desberdintasunak atzematen ditu, erkatu, ordenatu eta kuantifikatu egiten du, eta horrela manipulatzetik irudikatzerara igarotzen da, garatzen hasten ari diren abilezia logiko-matematikoen oinarria finkatuz.

Horrela, eta hezkuntzako esku-hartze egokiaren bitartez, ikasleak beren inguruko mundua ezagutzen hasten dira, beren pentsamendua egituratzen dute, denborazko sekuentziak barneratzen dituzte, etorkizuneko ekintzak kontrolatu eta bideratzen dituzte eta gero eta autonomia handiagoa lortzen dute helduei buruz.

Natur ingurunea eta hura osatzen duten izakiak eta elementuak haurren jakin-minaren eta interesen xede nagusi bihurtzen dira laster. Naturaren elementuei buruz dituzten bizipenek eta haiei buruzko gogoetek, eskolaren laguntzarekin batera, fenomeno natural batzuk, haien agerpenak eta ondorioak, ikustera bultzatuko dituzte ikasleak, eta, orobat, izaki bizidunak, haien artean ezartzen diren harremanak, haien ezaugarriak eta funtzio batzuk ezagutzera.

Natur ingurunearen aniztasuna eta aberastasuna estimatzea, pertsonak haren parte garela ulertzea eta harekiko lotura afektiboa eskolan errespetuzko eta zaintzako ohiko jarrerak sustatzeko oinarriak dira.

Etapan honetan zehar Haur Hezkuntzako ikasleak gizartearen parte direla ohartzen dira. Eskolako bizitzak berarekin dakar pertsonak eta haien arteko harremanak ezagutzera eramaten duten esperientzia zabalagoak egotea, loturak eratu eta sozializazioaren oinarria diren jarrerak garatzea, adibidez konfiantza, enpatia eta atxikimendua. Harreman afektibo horien garapenean kontuan hartuko da ikasleen bizipen, emozio eta sentimenduen adierazpena eta komunikazioa, identitatea eratu eta bizikidetzaren sustatzeko.

Pixkanaka, gure kulturaren ezaugarri batzuk ezagutzen hasiko dira. Kultur aniztasuna dela-eta, komeni da ikasleak gizartearen ohituretara hurbiltzea ikuspuntu ireki eta integratzaile batetik, horrela gizartearen dauden kultur mota eta adierazpen desberdinak ezagutzeko aukera izanen baitute eta haiekiko errespetuzko eta estimuzko jarrerak hartuko dituzte.

Nafarroako kultur tradizio desberdinak daude eremu geografikoen arabera. Ikasleak beren tradizioak baliabide didaktiko gisa erabiliko dituzte, eta beste tokietako tradizioak baloratuko dituzte Nafarroako kulturaren aberastasunaren adierazle diren aldetik, hizkuntza eta kultura desberdinak modu baketsuan bizi baitira gure komunitatean.

Beraz, haur ingurua ikaslearen inguruan dagoen bizi espazioa da, guretako bakoitza ukitzen duena eta kide garen kolektiboak (familia, lagunak, eskola edo auzoa) ukitzen duena eta barne hartzen duena.

Horrela, bizi garen ingurua osatzen duten alderdi fisiko, natural, sozial eta kulturalak atzemanen dituzte, eta beren burua Nafarroako komunitateko gizabanako gisa identifikatzen ikasiko dute.

Teknologia berriek inguruaren elementu gisa duten garrantzia dela eta, beharrezkoa da ikasleek, teknologia horiek beren bizitzan duten garrantziaz oharturik, haiek ezagutu eta erabiltzen hastea.

1.4.1.1. Helburuak

Ingurunea ezagutzeko arlo honetan, hezkuntzako esku-hartzeak ondoko gaitasun hauek garatzeko helburua izanen du:

- Beren ingurua modu aktiboan aztertu, egoera eta gertaera esanguratsu batzuei buruzko interpretazioak egin eta horiek ezagutzeko interesa izateko gaitasuna.
- Gero eta modu egokiagoan eta pozgarriagoan besteekin harremanetan jarri eta jokabide sozialeko arauak pixkanaka barneratu eta beren jokabidea horietara egokitzekoa.
- Beren esperientziatik hurbil dauden talde sozialak eta haien ezaugarri, kultur agerpen, balio eta bizimodu batzuk ezagutu eta haien aldeko konfiantzako, errespetuko eta estimuko jarrerak sortzekoa.
- Abilezia matematikoetan hasteko, elementuak eta bildumak funtzionalki manipulatu, haien ezaugarriak identifikatu eta haien arteko taldekatze, sailkapen, hurrenkera eta kuantifikazio harremanak ezartzekoa.
- Natur ingurunearen oinarritzko osagaiak eta haien harreman eta aldaketa batzuk ezagutu eta baloratzekoa, hura zaindu, errespetatu eta kontserbatzeko erantzukizuna hartzekoa, erreferentziaz hartuta Nafarroako Foru Komunitateko paisaiak.

1.4.1.2. Edukiak

1. Multzoa. Ingurune fisikoa: elementuak, harremanak eta neurketa.
 - Ingurunean dauden objektuak eta gaiak, haien funtzioak eta eguneroko erabilerak. Ingurunea aztertzeke interesa eta bere nahiz besteen objektuak errespetatu eta zaintzeko jarrera.
 - Objektuen eta gaien ezaugarriak eta nolakotasunak atzematea. Elementuak sailkatu eta haien ezaugarriak eta mailak aztertzeke interesa. Lehenbiziko zenbaki ordinalak testuinguru egokian erabiltzea.
 - Bildumen zenbaketaren hastapenak. Kontaketa kalkulatzeko estrategia gisa erabili eta kantitate erabilerrazei buruzko zenbaki kardinalak erabiltzea.
 - Zenbakien sailari buruzko hastapenak eta haiek ahoz erabiltzea kontatzeko. Zenbakiak eguneroko bizitzan duten funtzioaz ohartzea.
 - Neurketa beharrezkoa duten egoerak aztertu eta identifikatzea. Neurtzeko tresnekiko interesa eta jakin-mina. Haien erabilerari buruzko hastapenak.
 - Denboraren intuiziozko kalkulua eta neurketa. Eguneroko bizitzako jardueren denborazko kokapena.
 - Nork bere burua eta objektuak espazioan kokatzea. Kokaleku erlatiboak. Higitze orientatuak egitea.
 - Inguruko elementuetan forma planoak eta hiru dimentsiokoak identifikatzea. Oinarrizko gorputz geometriko batzuk aztertzea.
2. Multzoa. Naturara hurbiltzea.
 - Izaki bizidunak eta materia bizigabea identifikatzea: eguzkia, animaliak, landareak, harriak, hodeiak edo ibaiak. Bizitzarako duten garrantzia baloratzea.
 - Izaki bizidunen ezaugarri, jokabide, funtzio eta aldaketa batzuk ikustea. Bizi zikloari buruzko hastapenak: jaiotzetik heriotzara.
 - Natur ingurunearekiko jakin-mina, errespetua eta zainketa, bereziki animaliei eta landareei dagokienez. Haiekin harremanak izateke interesa eta atsegina izan eta jarduketa negatiboak baztertzea.
 - Nafarroako Foru Komunitatearen mapa eta haren paisaiak identifikatzea. Mendialdea, Erdialdea eta Erribera.

- Natur ingurunearen fenomenoak behatzea (euria, haizea, eguna, gaua...). Haien arrazoiei eta ondorioei buruzko aieruak egitea.
- Naturan jardutean atsegina izatea. Osasunerako eta ongizaterako duten garrantzia baloratzea.

3. Multzoa. Kultura eta gizartean bizitzea.

- Familia eta eskola kidetasuneko lehenbiziko talde sozialak diren aldetik. Haien existentziaren beharraz eta funtzionamenduaz ohartzea, eguneroko bizitzan betetzen duten zereginaren adibideak emanez. Haietan ezartzen diren harreman afektiboak baloratzea.
- Komunitatearen bizitzako premiak, eginbeharrak eta zerbitzuak aztertzea.
- Bide hezkuntza: trafikoko arauak, trafikoari buruzko lengoia ez hitzekoa, trafikoko seinaleak eta zirkulazioaren kodea nola interpretatu.
- Jokabideko jarraibide egokiak pixkanaka hartu, modu autonomoan eta elkarrizketaren bidez eguneroko bizitzako gatazkak partekatu eta konpontzea, arreta berezia emanez neskatoen eta mutikoen arteko harreman orekatuari.
- Ingurune ko kultur identitatearen ezaugarri batzuk ezagutu eta kultur nahiz gizarte jardueretan parte hartzeko interesa izatea. Nafarroaren bandera, armarrria eta himnoa ezagutzea. Erriberriko Nafarroako Erregeen Jauregia identifikatzea.
- Denboraren igarotzeari loturik, bizimoduan eta ohituretan gertatzen diren aldaketa batzuk identifikatzea.
- Beste kultura batzuetako hurrekin errespetuzko harreman afektiboak ezartzeko interesa eta prestasuna.

1.4.1.3. Ebaluazio irizpideak

- *Inguru hurbileko objektuak eta elementuak bereizi eta haietan eragitea. Elementuak eta bildumak berdintasun eta desberdintasun nabarien arabera taldekatu, sailkatu eta ordenatzea, magnitude batzuk bereizi eta erkatzea eta multzoak zenbakien sailaren bitartez zenbatzea.*

Irizpide honen bidez ondoko hauek baloratu nahi dira: inguruko objektuak eta gaiak identifikatzeko gaitasuna, haiek manipulazio-jardueren bidez aztertzeko

interesa eta haien ezaugarrien (forma, kolorea, tamaina, pisua...) eta jokabide fisikoaren (erori, biratu, irristatu, bote egitea...) arteko loturak ezartzeko gaitasuna.

Baloratzen da, halaber, haurrak abilezia logiko-matematiko batzuk garatzen ari diren modua, elementuen eta bildumen arteko lotura kuantitatiboak eta kualitatiboak ezartzearen ondorioz. Orobat, eguneroko bizitzako matematika problema errazak konpontzeko garatu den gaitasuna neurtuko da.

Ondoko hauek ere baloratuko dira: manipulaziorako materialen bitartez zenbakizko loturak aztertzeo interesa, oinarrizko zenbakiei buruzko magnitudeen ezagutza (adibidez, bost zenbakiak bost gauza adierazten duela, alde batera utzita zer toki hartzen duten, zein forma, tamaina nahiz bestelako ezaugarri dituzten), zenbaki kardinalak eta ordinalak ulertzeo gaitasuna, haien erabilera batzuen ezagutza eta eguneroko bizitzako egoeretan erabiltzeo gaitasuna.

Azkenik, kontuan hartuko da espazioari buruzko oinarrizko nozioen erabilera (goian, behean; barruan, kanpoan; hurbil, urrun), hala nola, denborari buruzkoena (lehen, gero; goizez, arratsalde) eta neurriei buruzkoena (pisuagoa da, luzeagoa, beteagoa dago).

- *Natur ingurunearekiko interesa izan, haren osagai batzuk identifikatu eta izendatzea, elkarren mendekotasuneko lotura errazak ezarri, natura zaindu eta errespetatzeko jarrerak izan eta hura kontserbatzeko jardueretan parte hartzea, Nafarroako paisaiak erreferentziatzat hartuta.*

Irizpide honekin ondoko hauek baloratzen dira: naturaren elementuei buruzko interesa, ezagutza eta sentsibilizazio maila, bai elementu bizidunei, bai bizigabeei dagokienez; haien ezaugarri eta funtzio orokor batzuk aztertzeo jarrera eta bizi zikloaren nozioa eta ziklo horrek dituen aldaketak ulertzeo gaitasuna.

Halaber, ingurune fisikoaren eta sozialaren artean lotura batzuk ezartzeko, pertsonen eguneroko bizitzan eragina duten aldaketa naturalak (urtaroen aldaketa, tenperatura...), eta gizakien jarduketan ondoriozko paisaiaren aldaketak identifikatzeko gai ote diren baloratuko da. Natura zaindu eta errespetatzeko jarrerak eta hura kontserbatzeko jardueretan parte hartzeoak

izanen dituzte. Orobat, ingurunea ezagutzeko interesa, egiten dituzten oharrak eta aldaketen arrazoiei eta ondorioei buruz egiten dituzten aieruak baloratuko dira.

- *Inguruko talde sozial garrantzitsuenak, haien antolaketaren ezaugarri batzuk eta eskaintzen diren zerbitzu komunitario nagusiak identifikatu eta ezagutzea. Haien ezaugarrien eta agerpen kulturalen adibideak eman eta haien garrantzia baloratzea.*

Irizpide honen bitartez ondokoen ezagutza maila neurtuko da: inguru hurbileko talde sozialak (familia, eskola...), horiek ematen dituzten zerbitzu komunitarioak (merkatua, osasun laguntza edo garraioak) eta haien zeregina gizartean.

Gizartearen beharraz ohartzen diren baloratzeko, gizartean erakunderik ez izateak pertsonentzat izanen lituzkeen ondorio batzuk eta bizikidetzarako arauak emateak duen garrantzia azaltzea eskatuko zaie.

Halaber, inguru hurbileko taldeetan duten integrazioa eta lotura afektiboa ikusiko da, bai eta beren jokabidea haiek erregulatzen dituzten printzipioen, balioen eta arauen arabera moldatzeko gaitasuna. Ikasleek gatazka egoerak aztertu eta horiek tratatu eta konpontzeko dituzten gaitasunei arreta berezia emanen zaie.

Inguruan dauden bestelako kulturak identifikatzen dituzten elementuak ulertzen ote dituzten eta ikaskide guztiekin afektuzko, errespetuzko eta eskuzabaltasuneko harremanak dituzten ere ebaluatuko da.

1.5. Haur Hezkuntzaren edukiak eta curriculum

- Foru dekretu honetan Haur Hezkuntzaren bigarren zikloko curriculum ezartzen da.
- Haur Hezkuntzako bigarren zikloan atzerriko lehen hizkuntza ikasten hasiko dira ikasleak. Halaber, irakurketarako eta idazketarako lehenbiziko hurbilketa sustatuko da, hala nola, zenbakien arloko abilezia oinarrizkoetako hastapen-espereziak, informazioaren eta komunikazioaren teknologietakoak eta adierazpen ikusizko eta musikalekoak.

- Hizkuntzak modu integratu eta koordinatuan ikasiko dira, hizkuntz gaitasuna eskuratzeko prozesua indartzeari begira.
- Haurrentzat interesa eta esanahia izanen duten jarduera globalizatuen bidez landuko dira hezkuntzako edukiak. Ikastetxeetako eguneroko bizitzako egoerek jarduera horien ardatza osatuko dute.
- Ikastetxeek foru dekretu honetan eta garapeneko arauetan ezartzen den curriculumak garatu eta osatuko dute. Zehaztapen horrek Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 14.2 artikulua aipatzen duen proposamen pedagogikoaren osagai izanen dira eta beren hezkuntza-proiektuan sartu behar dute.

1.6. Haur Hezkuntzaren ebaluazioa

- Ebaluazioa formatiboa, etengabea eta guztizkoa izanen da. Ebaluazio prozesuko teknika nagusia zuzeneko behaketa sistematikoa izanen da.
- Ebaluazioak ziklo honetan ikasleak ikasi duena eta haur bakoitzaren eboluzioaren erritmoa eta bilakaeraren ezaugarriak atzemateko balio behar du. Horretarako, ikasketa-adierazleek zehaztuko dituzte arlo bakoitzerako ezartzen diren ebaluazio irizpideak. Ikasketa-adierazleek ziklo honetarako ezartzen diren ebaluazio irizpideak zehaztuko dituzte.
- Ebaluazioa ikasleen hezkuntza-premia berariazkoei egokituko zaie eta hezkuntza-prozesua bakoitzaren garapenari doitzeko balioko du.
- Haur Hezkuntzako bigarren zikloan ari diren maisu-maistrek, ikasketa-prozesuez gain, beren hezkuntza-praktika ere ebaluatuko dute.

(<http://dpto6.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/currinfantileusk.pdf>)

1.7. Ingurumen hezkuntzaren helburuak

- Hiritar eta nekazal guneen artean dagoen elkarmenpekotasun ekonomiko, sozial, politiko eta ekologikoaren aldeko kontzientzia eta ardura sustatu populazioaren artean.
- Pertsona bakoitzari aukera eman ezagutzak, balioak, jarrerak, konpromezuak eta ezagupide teknikoak bereganatzeko, honela zaindu eta hobetu dezan bere ingurumena.

- Gizabanakoengan, giza talde eta gizarteengan portaera-forma orotariko eta arrunt berriak sortu ingurumenaren problemaren aurrean.

Ingurumen Hezkuntzaren helburu kategoriak [Belgrado Gutunean bildutakoak (1975ean Belgradon eginiko Ingurumen-Hezkuntzako Nazioarteko Mintegia) eta Tbilisi Konferentzian onartuak] honako hauek dira:

- *Kontzientzia:* Pertsona eta giza taldeei lagundu, ingurumen orokorra eta berarekin loturiko arazoez sentsibilitate eta kontzientzia handiagoa hartzen.
- *Ezagutza:* Pertsona eta giza taldeei lagundu, honako honen oinarritzko ulermena lortzen: Ingurumena bere osotasunean, berari loturiko arazoak eta gizakiak horretan dituen presentzia eta zeregina, erantzunkizun kritikoa sortzeko asmoz.
- *Jarrera:* Pertsona eta giza taldeei lagundu, ingurumenarekiko interes bizia lortzen, zeinek beronen babes eta hobekuntzan parte hartzera eramango dituen.
- *Gaitasuna:* Pertsona eta giza taldeei lagundu arazoak identifikatzen eta konpontzeko beharrezko diren gaitasunak lortzen.
- *Ebaluaketa gaitasuna:* Pertsona eta giza taldeei lagundu ingurumenarekiko neurriak eta egitarauak ebaluatzen, faktore ekologiko, politiko, ekonomiko, sozial, estetiko eta heziketazkoen arabera.
- *Parte hartzea:* Pertsona eta giza taldeei aukera eman aktiboki parte hartzeko ingurumen arazoak, maila guztietan, konpontzen eta beronen babes eta hobekuntzan parte hartzera bultzatuko dituen giza baloreak bereganatzen.

1.8. Nola irakatsi zientzia Haur Hezkuntzan

1.8.1. Jarduera motaren garrantzia

- Aktibitateak kurrikulumaren nukleoa dira eta horietatik ikasleek ezagutza berriak eraikitzen dituzte.
- Irakaskuntzaren kalitatea ez da helburuen bidez edota edukien bidez ebaluatzen, ikasgelan egiten denarekin baizik. Horregatik, irakaste prozesuan aldaketak ematen badira, lan egiteko modua birplanteatu delako da.

- Irakaskuntzaren ikuspuntu eraikitzailea kontutan izanik, irakasleak ikasleek parte har dezaten aktibitateak proposatzen ditu, eta beraietatik ikasle bakoitzak (egoera pertsonala kontutan izanik) ikasten du.

1.9. Zientziaren irakaskuntzarako jardueren ezaugarriak, motak eta funtzioa

- Fluxuzko prozesuak dira:
 - Jarduera didaktikoez komunikaziozko funtzioa daukate, eta hauen bidez irakasteko jakintza, irakasle eta ikasle arteko erlazioak definitzen dira.
 - Kontzeptuzko eta prozedurazko informazioaz gain, jarrerak, sentimenduak, usteak... jardueretan barneratuak doaz. Guzti hauek kontratu didaktikoa baldintzatzen dute eta zein informazio hautatu, sailkatu, interpretatu... esango digute.
- Helburu hezitzaileak dituzten prozesuak dira:
 - Jarduerak aukeratzeko orduan beraien bidez zein helburu lortu nahi dugun jakin behar dugu.
- Interakziozko prozesuak dira:
 - Komunikazioa izatea helburu baldin badugu, interakzioa eman beharko da jardueretan.
- Prozesu antolatutakoak dira:
 - Jarduerak, hauek aplikatzen dituen pertsonak zientziaz duen ikuspuntuarekin bat egiten duen estruktura izango dute.
 - Jarduerak ez dira onak edo txarrak, hautaketan dago oinarria.
- Gelarako esanguratsuenak diren prozesuak:
 - Jarduerak mota desberdinetakoak izan behar dira, ikasle bakoitzaren garapena ahalbidetuz.
 - Jarduera mota esanguratsuenak: Azalpenezkoak, Ordenagailu bidezko irakaskuntza, Lan praktikoak, Komunikabideen erabilera, Ariketak eta problemak, Ikasgela kanpoko aktibitateak, Kontsultarako materialen erabilera, Instrumentu didaktikoak...

1.9.1. Ikaskuntza prozesuan zehar jardueren sekuentziazioa

- Esploratze jarduerak:
 - Ikasleek ikertu beharreko gaia identifikatu eta honen inguruan hipotesiak formulatzea ahalbidetzen duten jarduerak izan behar dira.
 - Egoera konkretu eta sinpleen azterketa proposatzen da hauetan, ikasleen bizipenetatik hurbil.
 - Jarduera hauek, ikasle bakoitzaren eta taldearen aurrezagutzak ezagutzeko ere balio behar digute.
 - Ikasleei ere besteen ikuspuntuak entzuteak beraienarengandik desberdinak direla konturatzea ahalbidetzen die, ideiak birplanteatzera bultzatuz.
- Modelizazio jarduerak, prozedurak eta kontzeptuak lantzeko jarduerak:
 - Ikasleek mota honetako jardueren bidez ikerketa gaiarekin erlazioa duten ikuspuntu berriak identifikatu behar dituzte.
 - Irakaslearen funtzioa bizipen/esperientzi berriak, begiratzeko modu desberdinak, teknika berriak... txertatzea izan behar du.
 - Aldi berean, ikasleen arteko kooperazioa bultzatu beharko du, proposatutako ikerketan ikastaldearen aurreratzea bermatzeko.
 - Egoera konkretuetatik abiatu behar da, zatika aztertuz egoera eta azkenik hizkuntza abstraktoagoa erabiltzera pasatuz.
- Ezagutza estrukturatzeko jarduerak:
 - Ikasleak ezagutza eraikitzeke prozesua irakasleak gidatzen du normalean eta ikaskideekin emandako interakzioaren ondorioa izan ohi da. Baina sintesia norberak egin behar du.
 - Jarduera hauek ikasleak egiten ditu (eskemak, mapa kontzeptualak, "Gowin-en V-a", laburpenak, eredu matematikoak, marrazkiak...) eta hauen bidez egindako lanaren ideiak nola abstraitzen dituzten agertu beharko dute.
 - Ikasle bakoitzak bere ezagutzak adierazteko modua aurkitu beharko du.
- Aplikazio jarduerak:
 - Ikasketa esanguratsua izan dadin, ikasleei ikasitakoa beste egoera berrietan aplikatzeko aukera eman behar zaie.

- Ikasleei kosta egiten zaie ikasitakoa beste egoera berri batetara transferitzea. Horregatik, irakasleen erronka handienetakoa ikasleen estruktura kognitiboan ainguraketa egokiak bilatzea da, horrela ezagutzen transferentzia errezago eman dadin.

Sáez de Eguilaz, P. (2012). *Natur ingurunearen didaktika*. Iruñea: UPNA.

2. ESPARRU TEORIKOA / MARCO TEÓRICO

Haur bakoitzak jarrera eta nortasun desberdina duenez, bakoitzaren premia eta beharrak asetzen saiatuko gara proposamen honetan. Proiektuan zehar, haurrak aktiboak izango dira, mugitu, parte hartu, ikertu zein esperimintatu, sortu, hausnartu, erabaki... egingo dute. Honetaz gain, ikasleek beraien kabuz gatazkak konponduko dituzte.

Horretarako, kontuan hartuko da aipaturiko ekintza hauek haurren barneko prozesu eta erabakiak hartzeari dagozkiela. Jarduerak aurrera eramateko, beraz, haurraren interes eta beharrak kontutan izango ditugu. Programatutako ekintzak, hauen nahien arabera burutzen saiatuko garelarik.

Irakaslea haurrarekin harremanik gertukoena mantentzen duen pertsona da, irakaslearen lana familiaren lanaren osagarria izango delarik. Honek, giro goxo, osasuntsu eta ongizatekoa sortuko du haurrentzat. Bertan, haurrak nahikoa estimulu aurkituko ditu bere ikaskuntzan aurrera egin dezan, horrela, eroso, seguru eta alai senti dadin.

Hezitzaileak arreta guztia eskainiko die hurrei gustura senti daitezen, afektibitatea eta segurtasuna emanez, hau horrela, irakasleak behatzaileak eta orientatzaileak izango dira.

Alde batetik, behatzaileak izango dira, arazoak konponduz eta prebentzios jokatu. Bestalde, funtzio orientatzailea betetzen dutela esango dugu eredu imitagarri bat delako.

Haurrak irakaslea eredu gisa ikusiko dute eta ondorioz, berak egiten duena imitatuko dute. Irakasleak eragin handia du haurrengan, bere garapena bizkortu zein atzeratu dezakeelako, horregatik, kontu handiz ibili beharko da portaera eta edukiez gain, jarrerak ere transmititzen dituelako eta hauek beti irakaslea imitatuko dutelako.

Hau guztiaz gain, irakasleak haurra motibatzen saiatuko dira beraien jakinmina pizteko. Hezitzaileak ez die hurrei gehiegi eskatuko; haurrek laguntza behar dutenean laguntza emango die eskuhartuz, baina behar ez dutenean ez du parte hartuko, betiere, oso adi egongo da eta behaketa aktibo bat egingo du uneoro.

Proposatutako jardueren zailtasuna hurrei egokitutakoa izan beharko du, ez oso erraza ezta oso zaila ere. Errazegiak badira, haurrak ez du gauza berririk ikasiko. Zailgiak badira ordea, haurrak zailtasun horiek gainditu ezin dituela senti dezake, frustrazioa sortuz.

Helduak errespetua, askatasuna eta lankidetzaz (elkarlana) sustatu eta hobetuko ditu. Edozein jarduera egiteko jarraibideak argi emango ditu, honela, alde batetik, hizkuntza argia eta zehatza erabiliko du, berak espero duena ulertuko dela ziurtatuz.

Garrantzitsua da jarduera hasi aurretik atentzioa lortzea, hau lortzeko, taldeari egokitutako oinarriko hiztegia erabiliko duelarik. Aginteko doinua alde batera utziko du irakasleak eta ahotsa modelatuko du, haurrek jasoko duten mezua egoki uler dezaten, helburua ez baita guk nahi duguna egitea, baizik eta proposatzen denaren inguruko ekintzak aurrera eramatea. Betiere kontuan harturik, haurrek oztopoak aurki ditzaketela eta agian ezingo dutela guk espero genuena aurrera eraman.

Ekintzak egiteko beharrezko materiala irakasleak emango die eta proposatuko dituen ariketak estimulagarriak izango dira. Hezitzaileak askatasuna emango die hurrei gauzak frogatzeko, esperimentatzeko eta inizatiba propioak erabiltzeko. Zerbait ez ateraz gero, beste modu batez egiten saiatuko direlarik.

Planteatutako metodologia, adierazgarria eta globalizatua izango da. Aldiz, haurrak protagonista izan behar du, proposamen hau aurrera eramateko harremantzeak eta esperimentazioak garrantzi handia izango dutelarik.

Azkenik, gelan, kontuan hartuko da, haurra aukeratzeko libre izatea, autonomia izatea eta beti ere, ekintza guztien protagonista izan behar duela.

2.1. Reggio Emilia

2.1.1. Los principios de Reggio Emilia

Todo empieza en la primavera de 1945, al final de la Segunda Guerra Mundial, la gente de un pueblo, situado a pocos kilómetros de Reggio Emilia decide construir y gestionar una escuela para niños. Mediante la venta del material abandonado por los alemanes tras su huida (unos caballos, un tanque y un camión), se empieza a financiar y a llevar a cabo el proyecto.

Fue una escuela salida de la nada, que se empezó con muchas ganas e ilusión pero que no se sabía cómo continuaría hacia delante. Lo único que les hacía seguir eran las ganas y la ilusión de unos campesinos (sobre todo mujeres viudas por culpa de la guerra) que querían que las cosas cambiaran.

En un principio estuvo auto-gestionada por el pueblo hasta conseguir la gestión municipal. A esta se le añadieron más escuelas por la periferia, promovidas por mujeres y con la colaboración del CLN (Comité de Liberación Nacional).

La educación de los niños estaba en manos de educadoras excepcionales y muy motivadas, aunque su formación provenía de escuelas de magisterio privadas y católicas, su pensamiento era muy abierto, ambicioso y lleno de energía.

Los comienzos fueron muy duros, algunos de los niños estaban cansados, desnutridos y con una salud efímera, para ellos la lengua italiana era prácticamente desconocida ya que en sus hogares se hablaban diferentes dialectos.

Todo esto se superó con la enorme ilusión y ganas de las educadoras y con la colaboración de madres y padres cuyo objetivo principal eran sus hijos.

En 1954 la sociedad se embarca en un nuevo camino que supondrá un cambio en la concepción que se tenía sobre las escuelas infantiles. A principios de este año, más concretamente el 3 de Enero de 1954 se inician las transmisiones televisivas en Italia, la gente empieza a emigrar del campo a la ciudad y las mujeres comienzan su larga lucha para reivindicar la igualdad y sus derechos, que durante tantos años le habían sido negados, empezando así a romper con la tradición.

Esto supone un enorme cambio en la forma de ver las escuelas infantiles, aquí empieza la verdadera demanda por parte de las mujeres que comienzan a trabajar fuera de casa. Esto hace que el ayuntamiento se decida y apueste por la creación de nuevas escuelas infantiles.

En 1963 nace la primera escuela infantil municipal para niños de 3 a 6 años. Al inicio instalada en un edificio de madera prefabricado e impuesto por las autoridades. Constaba de dos aulas para unos 60 niños, fue llamada Robinsón.

Tres años después el edificio se quemó por culpa de un cortocircuito pero un año más tarde y después de superar todos los contratiempos y muros impuestos por el

gobierno de entonces, el ayuntamiento consiguió construir la primera escuela municipal infantil para niños de 3 a 6 años hecha ya de obra.

En 1968 las aulas en las escuelas infantiles pasaron a ser doce, veinticuatro en 1970, cuarenta y tres en 1972, cincuenta y cuatro en 1974 y cincuenta y ocho en 1980 (Datos recogidos en el libro de Loris Malaguzzi, "La Educación Infantil en Reggio Emilia" pag.31), repartidas en un total de veintidós escuelas.

Esto supuso una brecha en la red de escuelas católicas, que en aquel momento eran dueñas del monopolio educativo. Esta situación no gustó mucho a la vertiente católica, llegando a difundir por radio una campaña muy violenta de desprestigio en contra de las escuelas de Reggio Emilia y las municipales.

No solo les molestaba perder este monopolio de la educación sino que sus ingresos empezaban a ser muy bajos y existía una ley que no permitía dar más privilegios a las escuelas privadas y estas necesitaban de una ayuda.

Pero aquí no termina todo, el gobierno también estaba descontento con esta situación a causa del enorme crecimiento cultural que estaba sufriendo la población y el enorme interés que levantaba esta experiencia a nivel internacional.

2.1.2. Qué suponen estas escuelas

Son consideradas escuelas de un único organismo vivo, un lugar de convivencias y de intercambio relacional entre adultos y niños. Un lugar en el que se piensa, discute y se trabaja tratando de reconciliar lo que se sabe con lo que no se sabe, las dificultades, los errores, las expectativas, los éxitos, las dudas y los problemas de elección. Una manera diferente de trabajar que no se había visto hasta el momento y que a día de hoy aun siguen muchas escuelas.

2.1.3. Metodología

Estas escuelas están basadas en una ley fundamental: "Si se hacen cosas reales, también son reales sus consecuencias" (Loris Malaguzzi, "La Educación Infantil en Reggio Emilia" pag.60), es decir, las ideas surgen a partir de los acontecimientos y experiencias reales, dando lugar a respuestas y conclusiones reales.

 - Ebaluazio batugarria: Hezkuntza-proiektuan finkatutako helburuen erdiezpen-maila eta zergatiak ezagutzeko egiten den ebaluazioa da. Proiektu edo ziklo baten bukaeran aplikatzen da.
 - Ebaluazio diferitua: Proiektua bukatu eta ondorengo denbora batera egiten den ebaluazioa da. Proiektuak utzi dituen emaitzak eta eragina ebaluatzen dira.

- Proiektuari buruz hitz egiten dugunean hau ulertzen dugu: ikasle talde batek, irakasleak lagunduta, emaitza bat lortzeko intentzionalki proposatzen duten ekintza plana.
- Lan proiektu guztietan egoerak sortzen dira non ikasleek erabakiak hartzen dituzten, hausnarketa egiten duten, ikerketa, eztabaidak eta ideien kontrastea, hipotesiak eman, informazioa bilatu... Hau da, egoera horietan ikasleak pentsatu behar du.
- Lan egingo diren gaien planteamendua beti berdina da:
 - Zer dakigu ...-i buruz ?
 - Zer gehiago jakin nahi dugu?
 - Zer ikasi dugu?

3. PROIEKTU BATEN PROPOSAMENA: FRUTAK

3.1. Sarrera

Proposamen hau elikagai osasuntsuen inguruko lana da, fruten ingurukoa hain zuzen ere. Proiektu honetan frutei buruzko ezagutzak emango zaizkie hurrei, haiek frutak ezagutu eta dauden fruta ezberdin guztiak ezagutu ahal izateko. Gainera, gai honek, eremu desberdinen inguruan lan egitea errazten du. Hala nola, natura, landareak, eguraldia... ohitura onuragarri eta osasuntsuei garrantzia emango zaielarik.

Proiektu hau herriko osasun zerbitzuak egindako proposamen batetik abiatzen da. Hauek, haur eta gazteen loditasunagatik kezkatuta, plangintza bat martxan jarri zutelarik. Beste eragileen artean, eskolarekin lan egitea bururatu zitzaien eta osasun-etxeko arduradunak eskolako arduradunarekin bildutako bilera batean egindako diagnosia aurkeztu zuen.

Datu kezkarriak aurkeztu zituzten, haur eta gazteek dituzten elikadura ohiturak eta hauek beraien osasunean eragiten ari zaizkien ondorio kezkarriak. Esan bezala, elikadura osasuntsu bat bultzatzeko lanean, eskolaren parte hartzea eskatu zuten.

Bigarren fase batean, eskolako arduradunak bileraren berri eman zuen. Eskolan diagnosia egin zuten eta hamarretako eta bazkari orduetako gorabeherataz aritu ziren. Eskola osasun zerbitzuekin bat zetorren eta bere ardurari erantzunez, baiezko borobila eman zitzaien.

Hirugarren fasean, berriz, ziklo eta sektoreetako bilerak burutu ziren, bakoitzak burutuko zituen jarduerak zehazteko. Hau horrela, frutekin lan egitea erabaki zen.

Honakoa izango da proiektuaren planteamendu orokorra. Hasiera batean, aurrezagutzak lantzeko, hurrei fruta ezberdin batzuk erakutsiko zaizkie plantilla ezberdinen bidez. Fruten nondik norakoak ezagututa, pieza bakoitzari dagokion irudia, ideia, ezaugarri ezberdinak... landuko dira. Besteak beste, kolorea, forma, testura, etab. Honek guztiak, hurrei sentazio ezberdinak bizitzea eragingo dielarik.

Proiektu honetan zehar, gerta daiteke hurren bati frutak ez gustatzea, hori dela eta, frutak dituzten ontasunei buruz arituko gara, elikaduran frutek garrantzi handia

dutelako. Beraz, hurrei beraiek elikaduraren inguruan dituzten ohiturak azaleratzeko aukera emango zaie, gehienbat frutetan zentratuz.

Hau egin eta gero, frutekin erlazio zuzena eta erreala izateko asmoarekin, hurrekin hainbat jarduera ezberdin egingo dira. Hau da, egun ezberdinetan zehar fruta desberdinak landuko dira korroan edota txokoetan (adibidez etxe txokoko sukaldean).

Ondoren, aukera hori aprobetxatuz, urtaroka jaten diren fruta motak landuko dira, hauekin sailkapen bat eginaz. Taldekatze horren bitartez, hurrei fruten izenak barneratzeko aukera emango zaielarik.

3.2. Datu orokorrak eta taldearen ezaugarriak

Proiektu hau Lesakako Irain Eskola Publikoan burutuko da, Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloko 3 urteko gelan, hamabost hurrez osaturiko talde batekin. Hamalau haur Lesakakoak dira eta bat Igantzikoa, taldea hamar neska eta bost mutilek osatzen dutelarik. Kontutan hartu beharra dago, D ereduan matrikulatuak daudenez, klase guztiak euskaraz ematen direla.

Gelan ez dago Premia Berezirik duen haurrik, baina, programazioa aurrera eramaterako orduan, haur bakoitzaren erritmoa eta beharrak errespetatuko dira. Haur taldea aktiboa da eta irakasleen motibazio eta estimulazioarekin ikasleen parte hartzea bultzatuko da.

3.3. Helburu orokorrak

- Euskaraz hainbat elikagaien izenak ezagutzea, baita lehentasunak, sentimenduak, esperientziak eta errealitatearen errepresentazioak ere.
- Euskaraz hainbat elikagaien izena ezagutzea eta adierazteko gai izatea. Baita hauek desberdintzea ere.
- Beste haurren eta helduen mezuak ulertzea era askotariko hizkuntza-testuinguruetan eta harreman horiek zuzentzen dituzten arauak ezagutzea, komunikazio-asmoak egoki interpretatzeko.
- Ohitura onuragarri eta osasungarriak lantzea, eguneroko testuinguruetan ezagutza hauek txerta ditzaten.

- Elikadura zaintzearen garrantzia ikustaraztea, osasun fisikoak bizitzako arlo desberdinetan duen eraginaz jabetuz.
- Bertako produktuak ezagutzea, baserrietan bizi diren herritarren ohitura eta esperientziak gertutik ikusiz.
- Baratze bat izatearen nondik norakoak jakitea, honen inguruko beharrezko informazio guztia jasoz.
- Baratzeko produktuak ezagutu eta zertarako balio duten ikastea, egunerokoan erabilgarritasun handiagoa emanez.
- Fruta zein baratzeako produktuak jateko interesa eta gogoia piztea, etxeetan ohitura onuragarri eta osasuntsuak izateko bidea eginez.

3.4. Helburu didaktikoak

- Ahozko testu errazak ulertzea: deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak, asmakizunak...
- Eguneroko egoeretako helduen eta beste haur batzuen komunikazio-asmoak ulertzea.
- Ohiko komunikazio-egoeretan parte hartzea eta modu aktiboan entzutea.
- Hizketaldiak eta elkarrizketak hasteko eta haiei eusteko estrategia egokiak erabiltzea (esku-hartzeetan txandakatzea, ikusizko harremana...).
- Ikus-entzunezko bitartekoek igortzen dituzten mezuak interpretatzen hastea.
- Frutekin harreman egoki eta ludikoa sortzea (ezarpenetatik intereserako aldaketa sortzea).
- Frutak ezagutu eta ezberdintzea, taldekatze ezberdinak egiteko gaitasuna izanez.
- Hainbat lanbide eta langileekiko ezagupen eta errespetua izatea, herrian bertan dauden baserritarren egoera ezagutuz.
- Bakarka, talde txikietan edota talde osoarekin lan egin eta jarduteko gai izatea.
- Jarduera ezberdinen bitartez zentzumenak lantzea eta hauek transmitituriko informazioa jasotzea.
- Fruten ezaugarriak deskribapenen bidez azaltzen ikastea, pieza ezberdinak bereiztuz.

3.5. Edukiak

- Autonomia eta norbere identitatea:
 - Bere nahiz besteen objektuak errespetatu eta zaintzeko jarrera.
 - Berdinen arteko jarrera atsegina izatea.
 - Zentzumeneren erabilera, sentsazioak eta pertzepzioak.
- Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza:
 - Fruten ezaugarri nagusiak eta bereizgarritasunak ezagutu.
 - Fruta mota ezberdinak desberdindu.
 - Inguruneko kultur identitatearen ezaugarri batzuk ezagutu.
- Matematika:
 - Kantitateak zenbatu, neurtu, antolatu eta sailkatu.
 - Inguruneko objektuak eta distantziak neurtu.
 - Zenbakien arteko ordena eta erlazioak egin.
 - Frutak luzeraren, kolorearen edo tamainaren arabera konparatu.
 - Fruten inguruko puzzlea osatu.
- Hizkuntza:
 - Fruten gaiarekin lotuta dagoen ipuin bat ulertu.
 - Ipuina kontatu ondoren, ulermen galderei erantzun.
 - Fruten hiztegi egokia ezagutu eta erabili.
 - Ipuinak eta asmakizunak ezagutu eta ezberdindu.
- Hezkuntza artistikoa:
 - Fruten inguruko marrazkiak egin.
 - Kolore nahasteekin saiakuntzak egin.

3.6. Baliabide materialak

Proposamena aurrera eraman ahal izateko material ezberdina beharko da, hala nola; argazkiak (fruta desberdinena), musika (non frutak aipatzen diren), olerkiak, ipuinak, puzzleak (hauek ere fruten ingurukoak izango dira), likuadora, fruta errealak, frutek duten prozesua (baratzean landatu, hazi, bildu eta saldu), haurrek etxetik ekartzen dutena (liburuak, beste herrialdeetako fruituak edo beraien argazkiak).

3.7. Giza baliabideak

Hamabost haur izango dira, hau da, gela osoa. Horregatik, eskola guztiaren parte hartzea eta koordinazioa beharrezkoa izango da txangoak aurrera eramanez ahal izateko eta momentu zehatzetan eskolako espazio komunak (tailerra) erabili ahal izateko. Ez da ahaztu behar familien inplikazioa ere garrantzitsua izango dela, bai txangoak burutzeko baita eskolan soilik burutzen den hezkuntza-jarduera bat ez izateko.

Izan ere, askoz ere aberasgarriagoa izango litzateke etxean ere eskolan hasitakoa landuko balitz eta nola ez, etxekoak ere gai honek duen garrantziaz jabetuko balira, horrela, honen kontzientzia hartuz.

Gelako irakasleek ere ezinbesteko papera izango dute, hurrekin proiektua gelan lantzeaz gain, hainbat pertsonekin kontaktuan eta koordinazioan egon beharko baitute. Hala nola, familiak eta eskolako gainontzeko irakasle taldea.

3.8. Denbora

Jarduera bakoitzak denbora ezberdina beharko du, geroago zehaztuko delarik. Iraupena gutxi gora beherakoa da, gerta daitekeelako haurrak ekintza batzuetan lehenago nekatzea eta ekintza uste baino lehenago amaitu behar izatea, edota alderantziz gertatzea, haurrek jarduera luzatu nahi izatea eta denbora gehiago eskatzea.

Denboraz larri ibili ezker, hurrengo egunerako utziko litzateke jarduera eta beste ariketa motzagoren bat egingo litzateke. Kasu honetan, denbora hamabost bat minutu gehiago luzatuko litzateke.

Denboraz hitz egitean, kontutan izango da beste espazio batera joan beharra, jarduera burutu ondoren egin beharreko garbiketa...

3.9. Espazioa

Espazioari dagokionez, jarduerak leku desberdinetan eramango dira aurrera. Eskola barruko espazioari dagokionez, gela, tailerra eta sukaldea erabiliko dira, baina, ez gara soilik eskolako espazioan mugatuko. Bi irteera burutuko dira, biak herrian bertan, beraz, ez dugu autobusaren beharra izango.

Lehenengoa, eskolako haur baten aitona-amonon baratza eta bestea herriko azokara. Proiektua aurrera eramaten dugun heinean, jolas sinbolikoaren txokoa (etxe txokoa) azoka edo fruta-denda batean bihurtu daiteke. Hau da, txoko hori denda bat izango balitz bezala antolatuko da eta bertako materiala plastikozko frutak izango lirateke. Bestale, benetazko frutak ere utzi daitezke denboraldi batean hurrek hauek manipulatzeko joateko.

3.10. Metodologia eta aniztasunaren trataera

Esan bezala, alde batetik, proiektukako metodologia erabiliko da Reggio Emiliaren oinarriak kontuan harturik. Bestetik, aniztasunaren traterari dagokionez, proiektuaren elementu guztiek haurren erritmo ezbedinei erantzuniko diete, ikasleen ikaskuntza eta esanguratasuna errespetatuz. Horretaz gain, ikaskuntza esanguratsua, motibazio eta interesa, ikuspegi globalizatzailea, jarduera printzipioa, ziurtasun giroa, malgutasuna, indibidualizazioa, aniztasunaren printzipioa, familiekin erlazioa, sozializazioa... landuko dira. Gainera, jardueretan zehar taldekatze desberdinak erabiliko dira.

3.11. Jardueren sekuentziak

1. Taula. Jardueren sekuentziak

	LEHENENGO SAIOA	BIGARREN SAIOA
1. Eguna	Frutak ezagutzen	Frutak ezagutzen
2. Eguna	Fruta ezagutu ondoren dastatuko dugu?	
3. Eguna	Frutak margotzera!	
4. Eguna	Abesten!	
5. Eguna	Ipuina kontatzen	Fruta-fruta
6. Eguna	Tailer txikia	
7. Eguna	Baratzera txangoa	Baratzera txangoa
8. Eguna	Fruta tailerra	
9. Eguna	Azokara!	Azokara!
10. Eguna	Zukuak egiten	

3.12. Jardueren garapena

3.12.1. Lehenengo eguna

3.12.1.1. Lehenengo saioa: Frutak ezagutzen

- Helburu didaktikoak:
 - Eguneroko testuinguruetan, informazioari, beharrei, emozioei eta nahiei dagozkien ahozko mezuak ekoiztea.
 - Hizkuntzaz kanpoko zeinuak (keinuak, tonua...) erabiltzea, igortzen diren mezuen esanahia indartzeko.
 - Hizketaldiak eta elkarrizketak hasteko eta haiei eusteko estrategia egokiak erabiltzea (apelazioak, esku-hartzeetan txandakatzea, ikusizko harremana...).
 - Naturari buruz dituzten ohiturak hausnartzea. Adibidez, hainbat fruten ezaugarriak ezagutzea.
 - Frutei buruzko ezaguera zabaltzea.
- Edukiak:
 - Kontzeptualak:
 - Fruten formak eta koloreak.
 - Prozedurazkoak:
 - Ezagupen eta desberdintzea.
 - Balio-edukizkoak:
 - Beren ahozko lengoia ulertu eta erabiltzea.
 - Bere buruaz irudi baikorra eta positiboa izatea.
 - Beste pertsonen ideiak errespetatzea, diskriminazio jarrerarik gabe.
 - Arau eta gizarte mailako jokaerak ezagutzea eta errespetatzea.
 - Ahoz komunikatzeaz gain, komunikatzeko beste erak daudela behatzea.
- Metodologia:
 - Denbora: 30 minutu.
 - Espazioa: Gela.
 - Materiala: Fruta ezberdinen argazkiak egoera desberdinetan.

– Taldea: Talde osoak elkarrekin egingo du ariketa.

- Garapena:

Haur guztiak irakaslearekin borobilean eseriko dira eta frutei buruz hitz egingo da; ze fruta ezagutzen ditugun, zeintzuk gustoko ditugun, ze koloretakoak diren...

Irakasleak hainbat galdera egingo dizkie: “Nork ekarri du fruta hamarretarako?”, “Nori gustatzen zaio banana? Eta udarea?”, etab.

Hitz egiteko txandak errespetatuko dira. Azkenik, irakasleak ikasleak esandakoa kontutan hartuz fruta desberdinak aipatuko ditu eta hauen ezaugarri batzuk gorai patuko ditu. Gelako ordenagailuan ikusiko ditugu fruten argazkiak.

3.12.1.2. Bigarren goaia: Frutak ezagutzen

- Helburu didaktikoak:

- Eguneroko testuinguruetan, informazioari, beharrei, emozioei eta nahiei dagozkien ahozko mezuak ekoiztea.
- Hizkuntzaz kanpoko zeinuak (keinuak, tonua...) erabiltzea, igortzen diren mezuen esanahia indartzeko.
- Hizketaldiak eta elkarrizketak hasteko eta haiei eusteko estrategia egokiak erabiltzea (apelazioak, esku-hartzeetan txandakatzea, ikusizko harremana...).
- Frutei buruzko ezaguera zabaltzea.
- Kolore desberdinetako frutak daudela ikustea eta desberdintzea.

- Edukiak:

- Kontzeptualak:
 - Fruten ezaugarri desberdinak ezagutzea euren formak eta koloreak aztertuz.
- Prozedurazkoak:
 - Ezagupen eta desberdintzea.
 - Erne egotea besteak errespetatuz.
- Balio-edukizkoak:
 - Ingurunearen elementuak izaten dituzten aldaketak behatzea.
 - Natur ingurunearen kalitate eta garrantziaz jabetzea.

- Ahoz komunikatzeaz gain, komunikatzeko beste erak daudela behatzea.
- Metodologia:
 - Denbora: 30 minutu.
 - Espazioa: Gela.
 - Materiala: Fruten argazkiak eta I.Eranskina.
 - Taldea: Talde osoak elkarrekin egingo du ariketa.
- Garapena:

Irakasleak gustoko dituen fruta batzuk aipatu eta hauen argazkiak erakutsiko dizkie ordenagailuan, zuhaitzean daudela eta jaso ondoren. Gero koloreen arabera taldekatuko ditu hurrekin batera paretean itsatsiz (ordenagailuko argazkiak inprimatu). Jarraian, frutak sailkatzeko fitxa bat emango zaie hurrei.

3.12.2. Bigarren eguna

3.12.2.1. Lehenengo saioa: Fruta ezagutu ondoren dastatuko dugu?

- Helburu didaktikoak:
 - Hizkuntzak barneko munduaren eta kanpokoaren arteko lotura dira, tresna egokia baitira errealitatea adierazteko, norberaren jokabidea arautzeko, harremanetarako, eta pentsamenduak, sentimenduak, nahiak, gustoak, bizipenak eta abar adierazteko.
 - Ohiko komunikazio-egoeretan parte hartzea eta modu aktiboan entzutea.
 - Dastamen zentzumena landu eta garatzea.
 - Naturari buruz dituzten ohiturak hausnartzea. Adibidez, hainbat fruten ezaugarriak ezagutzea.
- Edukiak:
 - Kontzeptualak:
 - Fruta jateko moduak: osoa, zatitua, likuatua.
 - Prozedurazkoak:
 - Jaten ari garen fruten zaporea ezagutzea.
 - Eskolako gelakideekin harremanetan jartzea.
 - Balio-edukizkoak:

- Beren ahozko lengoaia ulertu eta erabiltzea.
 - Bere buruaz irudi baikorra eta positiboa izatea.
 - Beste pertsonen ideiak errespetatzea, diskriminazio jarrerarik gabe.
 - Arau eta gizarte mailako jokaerak ezagutzea eta errespetatzea.
 - Zapore desberdinak frogatzea.
- Metodologia:
 - Denbora: 30 minutu.
 - Espazioa: Gela.
 - Materiala: Fruten argazkiak eta etxetik ekarritako hamarretakoa.
 - Taldea: Talde osoak elkarrekin egingo du ariketa.

- Garapena:

Haur guztiak irakaslearekin egunero bezala borobilean eseriko dira eta berriz ere fruten inguruko aipamen batzuk egingo dira argazkiak ikusiz eta aurreko egunean hitz egindakoan oinarrituz.

Ondoren, haur bakoitzak hamarretarako zein fruta ekarri duen esango du eta honen deskribapen txikia egingo du bakoitzak (aurreko egunean ohar bat bidaliko da etxera egun honetako hamarretakorako fruta ekartzeko eskatuz).

Gero, bakoitzak bere fruta hartuko du eta borobilean dauden bitartean lasai-lasai jango dute.

3.12.3. Hirugarren eguna

3.12.3.1. Lehenengo saioa: Frutak margotzera!

- Helburu didaktikoak:
 - Ikus-entzunezko bitartekoek igortzen dituzten mezuak interpretatzen hastea.
 - Ahozko hizkuntza komunikaziorako tresna gisa eta norberaren eta besteen jokabidea arautzeko laguntza gisa hartzea eta balioestea.
 - Higienea lantzea: Adibidez, eskuak garbitzea eta denon artea biltzea eta ordenatzea. Hau guztia barneratzea.
 - Naturaren edertasunaz jabetzea: Adibidez, naturako elementu desberdinak (frutak) margotuz eta ezagutuz.
- Edukiak:

- Kontzeptualak:
 - Fruten forma eta kolorea aztertzea.
- Prozedurazkoak:
 - Bakoitzaren gorputzaren kontrol dinamikoak eta koordinazioa lortzea.
 - Begi-esku koordinazioa aplikatzea objektuak gero eta zehaztasun maila handiagoz erabiltzeko.
 - Talde handitan zein txikitan lanean jarduten ikastea.
- Balio-educizkoak:
 - Autonomiaz jokatzeko, espazio eta denboran orientatuz. Bere sorkuntza plastikoa eta bere lagunenak ere errespetatu eta interesa erakustea.
- Metodologia:
 - Denbora: 45 minutu.
 - Espazioa: Gela.
 - Materiala: V-XI. Eranskinak, kartulina txuriak, tenperak, pintzelak.
 - Taldea: Talde osoak elkarrekin egingo du ariketa, baina, margoketa lana bakarka egingo dute, bakoitzak bere marrazkia eginez.

- Garapena:

Irakasleak frutak agertzen diren fitxa desberdinak erakutsiko ditu. Ume bakoitzak gustokoen duen marrazkia aukeratu eta tenperekin kartulina txuri batean margotu egingo du. Marrazki hauek estereotipatuak izan daitezke baina, beste alde batetik, hurrek fruta baten irudi erreal bat aukeratu dezakete eta honen errepresentapena egin. Tenperekin, kolore ezberdinak nahastean sortzen diren kolore berriak egitea esperimenteratu dute.

Beste aukera bat izango litzateke, irudi errealaz aparte, hurrek edo irakasleak fruta desberdinak eskolara eramatea eta hurrek nahi dutena aukeratzea gero paperean errepresentatzeko. Ariketa aurrera doan heinean, fruten inguruko abestia entzungo dute.

Fitxak edo irudiak eginda daudenean, guztiak bildu eta gelako paretetan jarriko ditugu denon artean gela apaintzeko, baita, egindako lanaren prozesuko

argazkiak ere. Ondoren, margo guztiak jasoko ditugu denon artean eta eskuak garbituko ditugu. Margoketa banakako lana izango da eta gela apaintzea talde lana, gelako haur guztiek elkarrekin egingo baitute.

3.12.4. Laugarren eguna

3.12.4.1. Lehenengo saioa: Abesten

- Helburu didaktikoak:
 - Ahozko testu errazak ulertzea, hala nola, abestiak, eta hauekin gozatzea. Memoria eta erritmoa lantzea. Adibidez, abesti bat ikasiz eta bere erritmoa jarraituz.
- Edukiak:
 - Kontzeptualak:
 - Fruten izen desberdinak ezagutzea.
 - Prozedurazkoak:
 - Bakoitzaren gorputz-kontrol dinamikoa eta koordinazioa lantzea.
 - Norberaren mugimendu, zentzumenean eta adierazpen ahalbideak ezagutu eta erabiltzea.
 - Bere sorkuntza musikala eta gorputzezkoa garatu eta lagunenak errespetatu eta interesa erakustea
 - Balio-educizkoak:
 - Bere buruaz irudi egokitua eta baikorra izatea.
- Metodologia:
 - Denbora: 30 minutu.
 - Espazioa: Gela.
 - Materiala: Mp3 erreproduktorea eta abestia.
 - Taldea: Talde osoak elkarrekin egingo du ariketa.
- Garapena:

Haur guztiak irakaslearekin egunero bezala borobilean eseriko dira eta berriz ere fruten inguruko aipamen batzuk egingo dira. Oraingoan fruten inguruko abesti bat entzungo dugu mp3 erreproduktorean (aurreko egunean margotzen zeuden bitartean entzuten zena).

Ondoren abestia abestuko dugu eta hirugarren aldi batean abestia kantatzen saiatzen garen bitartean dantza eta keinuka (abestiak esaten duenari keinu ezberdinekin erreferentzi eginez eta haurrak abestiaren letra errazago ulertu eta ikas dezan) ibiliko gara. Abesti hau interesguneak irauten duen bitartean egunero abestuko da egunean zehar.

3.12.5. Bostgarren eguna

3.12.5.1. Lehenengo saioa: Ipuina kontatzen

- Helburu didaktikoak:
 - Ahozko testu errazak ulertzea, hala nola, abestiak eta ipuinak, eta hauekin gozatzea.
 - Frutei buruzko ezaguera eta hiztegia zabaltzea.
 - Gure bizitzarako naturaren ongizatearen garrantziaz jabetzea.
- Edukiak:
 - Kontzeptualak:
 - Fruten izenak eta ezaugarriak ezagutzea.
 - Prozedurazkoak:
 - Ezagupen eta arretazkoak.
 - Balio-educizkoak:
 - Egoera desberdinetan beste pertsonak adierazten dizkieten asmoak eta mezuak ulertzea, hizkuntza harremanak izateko tresna gisa.
- Metodologia:
 - Denbora: 30 minutu.
 - Espazioa: Gela.
 - Materiala: Mp3 erreproduktorea, abestia eta IV.Eranskina.
 - Taldea: Talde osoak elkarrekin egingo du ariketa.
- Garapena:

Eguna hasteko, irakaslea haur guztiekin korruan eseriko da eta aurreko egunean ikasitako kanta abestu eta antzeztuko dute. Gero irakasleak fruten inguruko ipuin bat kontatuko du, "Baratzeko frutak" ipuina alegia.

3.12.5.2. Bigarrenengo saioa: Fruta-fruta

- Helburu didaktikoak:
 - Frutei buruzko ezaguera zabaltzea.
 - Fruta zehatz batzuk izendatzen eta antzematen jakitea.
 - Frutak deskribatzeko hiztegia zabaltzea.
 - Ahozko hizkuntzaren bidez nahiak eta mezuak igortzea.
- Edukiak:
 - Kontzeptualak:
 - Fruta desberdinak ezagutzea.
 - Prozedurazkoak:
 - Fruten ezagupen eta bereizketa.
 - Ahozko hizkuntzaren bidez sentimendu, desio eta ideiak adieraztea horrela, hizkuntza eguneroko komunikazio egoera eta testuinguru desberdinetara egokituz.
 - Balio-edukizkoak:
 - Beren gelakideekin harremanak izatea.
 - Autonomiaz jokatzeko espazio eta denboran orientatuz.
 - Norberaren portaera beste pertsonen egokitzea, nagusitasuneko jarrera baztertu eta lankidetzara bultzatuz.
- Metodologia:
 - Denbora: 30 minutu.
 - Espazioa: Gela.
 - Materiala: Fruten ipuinean agertzen diren fruta ezberdinak.
 - Taldea: Talde osoak elkarrekin egingo du ariketa. Ondoren, lau talde txikiak egingo dira.
- Garapena:

Ipuina kontatu ondoren honen inguruko laburpen txiki bat egingo da denek artean. Irakasleak elkarrizketa bultzatzeko galdera batzuk egin ditzake ea denek ipuina ulertu duten ikusteko (ulermen galderak).

Jarraian, korruan gaudela aprobetxatuz, irakasleak fruta desberdin eta oinarritzkoen marrazkiak erakutsiko dizkie haurrei, bakoitzaren izena esanez eta gaiaren hiztegia indartuz (irudiak ipuinean agertutako frutenak izango dira).

Fitxetako frutak behin ikusi ondoren, irakasleak banaka erakutsiko ditu berriz, bere izena esanez eta frutaren kolorea galdetuz.

Horrela, haurrek frutaren izena eta kolorea ezagutuko dute. Azkenik, lauко taldeak egingo ditugu eta talde bakoitzak gehien gustatzen zaion fruta aukeratu beharko du eta zergatia azaldu.

3.12.6. Seigarren eguna

3.12.6.1. Lehenengo saioa: Tailer txikia

- Helburu didaktikoak:
 - Eguneroko egoeretan helduen eta beste haur batzuen komunikazio-asmoak ulertzea.
 - Ohiko komunikazio-egoeretan parte hartzea eta modu aktiboan entzutea.
 - Txandak errespetatzea.
- Edukiak:
 - Kontzeptualak:
 - Fruten irudiak berehala ezagutzea, hauen testura, usaina, formak... jakinaz.
 - Prozedurazkoak:
 - Bere sorkuntza plastikoa garatu eta lagunenak errespetatu eta interesa erakustea.
 - Balio-edukizkoak:
 - Beren taldekideekin harremanak izatea.
 - Autonomiaz jokatzeta.
- Metodologia:
 - Denbora: 50 minutu (saio osoa).
 - Espazioa: Gela.
 - Materiala: V-XI.Eranskinak, margoak, guraizeak.

- Taldea: Bi talde osatuko ditugu ariketa egiteko.
- Garapena:

Bi lan-talde egingo ditugu. Lehenik eta behin, talde batek fruta batzuen fitxak aukeratuko ditu (irudi errealak edo estereotipatuak izan daitezke) eta beste taldeari margotzeko materiala emango zaie.

Margotu ondoren lehenengo taldearen txanda izango da, hauek kontu handiz irudia moztuko dute. Ondoren, hezitzaileak haurrek moztutako frutak hiru zatitan banatuko ditu (marrak eginez) gero, haurrek bertatik mozteko eta puzzleak sortzeko. Behin zatiak moztuta daudela denen artean puzzleak osatuko dituzte, beti ere, txandak errespetatuz.

3.12.7. Zazpigarren eguna

3.12.7.1. Goiz osoa: Baratzera txangoa

- Helburu didaktikoak:
 - Barazki batzuk izendatzen eta antzematen jakitea.
 - Eguneroko egoeretako helduen eta beste haur batzuen komunikazio-asmoak ulertzea.
 - Ahozko hizkuntza komunikaziorako tresna gisa eta norberaren eta besteen jokabidea arautzeko laguntza gisa hartzea eta balioestea.
 - Ohiko komunikazio-egoeretan parte hartzea eta modu aktiboan entzutea.
 - Naturari buruz dituzten ohiturak hausnartzea.
 - Barazkiei buruzko ezaguera zabaltzea.
 - Barazkien hazkuntza eta garapena ezagutzea.
 - Barazkien usaina, forma eta testurak ezagutzea.
- Edukiak:
 - Kontzeptualak:
 - Barazkien testura, usaina, formak... ezagutzea.
 - Prozedurazkoak:
 - Barazkien ezagupen eta bereizketa.
 - Zentzumenen esplorazioa.
 - Balio-edukizkoak:

- Disfrutatzea.
- Metodologia:
 - Denbora: Goiz osoa.
 - Espazioa: Gela, baratzerako bidea eta baratzea.
 - Materiala: Baratzeko eta inguruko produktu ezberdinak.
 - Taldea: Talde osoa joango da txangora.

- Garapena:

Jarduera hau burutu aurretik, gurasoei txangoa egiteko baimena sinatzeko eskatuko diegu. Haien parte-hartzea eskatuko da eta animatzen direnekin bileratxo bat egingo da txangoaren zehaztapenak eta antolakuntza definitzeko. Gelakide baten aiton-amonen baratzera joango gara hainbat barazki ikustera. Eskolatik gertu dagoenez, oinez abiatuko gara.

Kontutan izan behar da egun hauetan landu ditugun hainbat fruta ez ditugula topatuko, izan ere, fruta gutxi daude onduak garai honetan eta gainera, gehienak zuhaitzetan egoten dira. Hori dela eta, gehiago zentratuko gara baratzeko produktuetan. Txangoa urri amaieran edo azaro hasieran egingo dugunez, ilar gorriak, kalabazak, azenarioak, aza... ikusteko aukera izango dugu. Baserritarrak, baratze baten nondik norakoak azalduko dizkigu, hala nola, landatze prozesua edota produktuen bilketa.

3.12.8. Zortzigarren eguna

3.12.8.1. Lehenengo saioa: Fruta tailerra

- Helburu didaktikoak:
 - Nahiak eta desioak ahoz adieraztea.
 - Kideek esaten dutena entzutea eta ulertzea.
 - Fruten testura, usaina, formak... ezagutzea.
 - Frutekin harreman ludiko bat sortzea.
- Edukiak:
 - Kontzeptualak:
 - Fruten testura, usaina, formak... ezagutzea.
 - Prozedurazkoak:

- Fruten ezagupen eta bereizketa.
 - Zentzumeneren esplorazioa.
- Balio-educizkoak:
 - Disfrutatzea.
- Metodologia:
 - Denbora: 30 minutu.
 - Espazioa: Eskolako tailerra.
 - Materiala: Fruta ezberdinak, era erakargarrian aurkeztuak.
 - Taldea: Talde txikitan burutuko dugu jarduera, beraz, bost haurrek osatutako hiru talde egingo ditugu. Txandaka joango dira tailerrera, hezitzaile batekin.
- Garapena:

Esan bezala, bost pertsonako taldeetan abiatuko dira tailerrera hezitzaile batekin. Bertan, proposamena aurkituko dute prest. Proposamena fruta ezberdinez osatua egongo da, modu ezberdinetan moztuta eta aurkeztuta. Beste ale batzuk osorik agertuko dira. Nahi duten moduan jardungo dira, bakoitzak nahi duen prozesua garatuz.

3.12.9. Bederetzigarren eguna

3.12.9.1. Goiz osoa: Azokara!

- Helburu didaktikoak:
 - Erosketak egiteko hiztegia eskuratzea.
 - Eguneroko egoeretak helduen eta beste haur batzuen komunikazio-asmok ulertzea.
 - Eguneroko testuinguruetan, informazioari, beharrei, emozioei eta nahiei dagozkien ahozko mezuak ekoiztea.
 - Frutak eskuratu daitezkeen lekuetako bat ezagutzea.
 - Salmentarako sailkapen eta klasifikazio prozesu bat dagoela ezagutzea.
 - Fruta saltzailearen lanbidea ezagutu eta errespetatzea.
 - Zentzumeneren esplorazioa bultzatzea.
 - Entzumen eta atentzio gaitasunak bultzatzea.

- Edukiak:
 - Kontzeptualak:
 - Salmentarako bilketa, sailkapen eta prestaketa prozesua ezagutzea.
 - Prozedurazkoak:
 - Zentzumenen ikerketa eta esplorazioa.
 - Balio-educizkoak:
 - Errekolektore eta fruta saltzailearen lanarenganako errespetua.
 - Besteen lanarenganako errespetua.
 - Entzumena, atentzioa, ulermena... lantzea.
- Metodologia:
 - Denbora: Goiz osoa.
 - Espazioa: Herriko azoka.
 - Materiala: Bertako produktuak.
 - Taldea: Talde osoa joango da txangora.

- Garapena:

Jarduera hau burutu aurretik, gurasoei txangoa egiteko baimena sinatzeko eskatuko diegu. Haien parte-hartzea eskatuko da eta animatzen direnekin bileratxo bat egingo da txangoaren zehaztapenak eta antolakuntza definitzeko. Eskolatik gertu dagoenez, oinez abiatuko gara.

Behin azokan, fruten salmentarako errekolekzio, sailkapen eta prestaketa lanak azalduko zaizkie. Aurretik langileekin adostuta, hurrek frutak ukitu, usaindu eta dastatzeko aukera izango dute. Azkenik, hurrengo egunean burutuko dugun zuku tailerrera frutak erosiko ditugu. Kontuan izango da Lesakan azoka azaro erdialdean egiten dela, beraz, egun zehatz horretarako prestatuko da txangoa. Gainera, azokan bertako produktuak saltzen direnez, sagarra eta udarea bertan erosiko ditugu, baina, laranja eta banana dendan erosiko dira.

3.12.10. Hamargarren eguna

3.12.10.1. Lehenengo saioa: Zukuak egiten

- Helburu didaktikoak:
 - Ahozko hizkuntza komunikaziorako tresna gisa eta norberaren eta besteen jokabidea arautzeko laguntza gisa hartzea eta balioestea.

- Dastamen zentzumena landu eta garatzea.
- Frutak egoera likidoan ezagutzea.
- Fruta hartzeko modu ezberdinak ezagutzea.
- Edukiak:
 - Kontzeptualak:
 - Zukuak: laranja, sagarra, udarea, banana.
 - Fruta jateko moduak: osoa, zatitua, likuatua.
 - Prozedurazkoak:
 - Jaten ari garen fruten zaporea ezagutzea.
 - Zentzumenen ikerketa eta esplorazioa.
 - Eskolako beste espazio eta langileekin haremana edukitzea.
 - Balio-edukizkoak:
 - Eskolako eraikina zaintzea.
 - Besteen lanarekiko errespetua izatea.
 - Atentzioa jartzea.
- Metodologia:
 - Denbora: 50 minutu (saio osoa).
 - Espazioa: Ikastetxeko sukaldea.
 - Materiala: Likuadora, esprimidorea, frutak (sagarrak, udareak, laranjak eta bananak) eta edalontziak.
 - Taldea: Talde osoak egingo du ariketa. Baina, sukaldean bi taldetan banatuko dira.
- Garapena:

Bezperan azokara egindako txangoa gogoratuko dugu eta bertan bizitakoaren inguruan mintzatu. Erositako frutak atera eta haurren laguntzarekin sukaldera eramango ditugu.

Bi hezitzaile hamabost haurrekin joango dira, bertan sukaldaria egongo delarik. Honek, frutak jaso eta zukua nola egin azalduko die demostrazio bat eginez. Fruta bakoitzarekin egindako zukua usaindu eta dastatuko dute, eta ondoren, haiek egiteari ekingo diote hezitzaile eta sukaldariaren laguntzarekin. Denek parte hartu ahal izateko, haurrak bi taldetan banatuko ditugu.

3.13. Ebaluazioa

Ebaluaketaren bidez ikaslearen lanaz gain, irakasleen lana eta proiektua ebaluatuko da, egindako proposamena haurrentzat baliagarria den ikusiz.

Haurra ebaluatzeko, eguneroko ekintzak, haurraren interesa ekintza hauekiko eta azaltzen duen jarrera behatuko dira. Ebaluaketa hau aurrera eramateko, haurraren aurretiko ezagutzak kontutan hartuz, proiektua burutu ondoren dakiena behatuko da eta guztiaren behaketa sistematikoa egin ondoren, oharrak jasoko dira.

Irakasleen lana ebaluatzerakoan, metodologia egokia erabili den, ekintzak haurren ezaugarriekiko egokiak diren, estrategia egokiak erabili diren eta hezitzaileen jarrera egokia izan den aztertuko da.

Prozesua ebaluatzeko, berriz, egutegia erabiliko da, hau, behaketaren bidez haurraren beharretara egokituko dugu. Hau da, prozesuaren denboralizazioa egokia izan den aztertuko da. Bide egokitik joan garen ikusiko da eta haurrentzako prozesua nolakoa izan den behatuko da.

Amaierako ebaluazioari dagokionez, hasierako ebaluaketan zein ebaluazio hezigarrian planteatutako helburuak, edukiak, proposatutako jarduerak, proiektuaren iragankortasuna, taldekatzeen, etab. bildutako datu guztiak jasoko dira. Baita hasieran egindako galdeketak, eguneroko behaketak... ere.

Honen bidez, helburuak bete diren edo ez eta ondorioz, programatutako interesgunea eta hau aurrera eramateko burututako ekintzak egokiak diren edo ez ikusiko da, honek, hurrengo batean interesgune osoago eta hobeago bat egitea ahalbidetuko digularik.

3.13.1. Ebaluatzeko irizpideak

- Aurretiko ezagutzak jaso (korruan fruten inguruan hitz eginez).
- Proiektuan zehar planteatutako helburuak, edukiak, jarduerak, iragankortasuna, taldekatzeak... jaso.
- Proiektua amaitu ondoren ezagutzak jaso (korruan, jantokian... honen inguruan hitz eginez).

3.13.2. *Ebaluatzeko prozedurak, teknikak eta tresnak*

Behaketa, ekoizpenak, froga edo ariketak (ahozkoak, idatziak...).

- Ebaluatzeko behaketa erabili da?
- Oharrak hartu dira?
- Amaierako txosten bat egin da?

3.13.3. *Ikas-prozesuko helburuen betetze maila*

- Disfrutatu dute?
- Hainbat fruta desberdin ezagutzen dituzte?
- Ukimena, usaimena, zaporea eta formagatik bereizten dituzte?
- Fruta desberdinak izendatzen dituzte?
- Fruten inguruko hiztegia osatu dute?
- Fruten kolorea ezagutzen dute?
- Frutak deskribatzeko gai dira?
- Fruta jateari ekin diote?
- Hamarretako bezala fruta ekartzen jarraitzen dute?
- Etxean fruta gehiago jaten dute?

3.13.4. *Jardueren egokitasuna*

- Guztiak gai izan dira jarduera guztiak egiteko?
- Zailtasunak izan dituzte ariketaren bat aurrera eramateko?
- Jardueren denbora egoki antolatuta zegoen?
- Jarduerekin aspertu dira?
- Jarduerak luzeegiak ziren?
- Jarduerak pisutsuak egin zaizkie?

3.13.5. *Metodologia eta aniztasunaren trataera*

- Taldekatzeak egokiak izan dira?
- Talde osoko lanetan ondo funtzionatu du taldeak?
- Talde txikitan ondo moldatu dira?
- Bakarkako lanetan arazorik izan dute?
- Haur guztien interes eta beharretara egokitu gara?

- Haurrak motibatzeke gai izan gara?
- Laguntza behar izan dutenean laguntza eskaini diegu?
- Beharrezko azalpenak eman ditugu?
- Hezitzaileak agintezko doinua alde batera utzi du?
- Haurren autonomia bultzatu dugu?
- Haurren ikas-prozesua oztopatu dugu?
- Proiektuen bidezko metodologia ahalik eta hobekien aplikatzen saiatu gara?
- Erabilitako espazioak egokiak izan dira?
- Erabilitako materialak egokiak izan dira?

3.13.6. Ikasleen inplikazioa eta motibazioa

- Hurrek arreta mantendu dute?
- Guztiek parte hartu dute?
- Ekintza mota desberdinetan parte hartu dute?
- Manipulazio ekintzetan ondo moldatu dira?
- Arreta mantentzeko arazorik izan dute?
- Laguntza behar izanez gero taldekideei edo irakasleari eskatu diote?
- Motibazioa landu eta lortu da?
- Haurrak gustora egon dira?

3.13.7. Gelako giroa

- Giro lasaia egon da gelan?
- Elkarlana ikusi da?
- Txandak errespetatu dira?
- Talde osoarekin hitz egin eta harremanak dituzte?
- Jardueretan, jolasetan eta materialak biltzen parte hartu dute?
- Materiala behar bezala erabili dute?
- Materiala zaindu dute?

ONDORIOAK

Lan hau amaitu ondoren, proiektuen bidezko metodologiak malgutasunez jokatzea ahalbidetzen duela ikusi dut. Lan egiteko modu honekin, haurrak gehiago disfrutatzen dutela uste dut eta irakaslearen inplikazioa handiagoa denez, azkenean, haurren erantzunak hobeagoak dira.

Proiektuak ez dira metodologia didaktiko bat, baizik eta hezkuntzaren kontzeptzio global bat, curriculum itxiarekin apurtzen duena eta irakurtzen, idazten, kontatzen eta mundua irudikatzen nola ikasi erakusten laguntzen diguna.

Gainera, haur guztiak desberdinak diren ideiatik abiatuta, ezinezkoa da guztientzako eduki berdinak erabiltzea, giro eta ingurunea asko alda daitekeelako ume batetik bestera. Horregatik, gehiengoaren interesetara jotzen badugu, aterako den gaia askoz ere aberatsagoa izango da.

Kontzeptzio hau honetan oinarritzen da: subjektuak (ikaslea) esaten duena entzutea, ikasteko gogoak indartzea, hezkuntzan parte hartzen duten guztien elkarlana...

Horrela, hizkuntza ezberdinak (ahozkoa, idatzia, plastikoa, matematikoa...) eta gaitasun asko erabiltzea ahalbidetzen du (hitz egitea, argudiatzea, ados jartzea, laburtzea, aukeratzea, planifikatzea, ez erreplikatzeko, ulertzea...).

Proposatutako proiektu hau, ez zen zehazki haurren interesetatik abiatu, baizik eta osasun etxeko proposamena izan zen. Baina, haurren interesetako bat da ahora eramaten ditugun jakiak nondik datozen jakitea. Horregatik, proiektua haurren interesgune bilakatu daitekeela uste dut.

Nire ustez proiektuen bidez irakastea oso modu egoki eta praktikoa da, eta ikusi dudanagatik esan dezaket haurrak modu aktiboago batean murgitzen direla eta gaiarekin askoz motibatuagoak egoten direla.

Proiektuak lan egiteak denbora eta esfortzu handia eskatzen dio irakasleari. Izan ere, metodo hau aplikatzeko oso garrantzitsua da irakaslea guztiz inplikatzeko eta bere lana ilusioz hartzea.

Irakasleak modu errezeptibo batean jokatu behar du behin eta berriz haurren ideiak kontutan hartzeko. Honek haur talde bakoitza ezberdina dela onartu behar izatea

suposatzen du eta adibidez, editorial bateko liburuetan oinarrituz ezinezkoa da haur guztien beharrei erantzutea.

Proiektu bat aurrera eramateko garaian, oso garrantzitsua da ikaslearen ezaugarriak ongi ezagutzea, horrela, irakasleen eskuhartzea eraginkorragoa izan dela uste dut. Hau horrela, tutoreek haurren ezaugarriak zein diren jakin beharko dute, haurren beharrei erantzun egokia emateko.

Hau guztiagatik, hezkuntzako profesionalek etengabeko formakuntzan egon behar dira, metodologia berritzaileen berri izanez eta aldaketak egiteko prest egonez. Gainera, bai tutore baita haurrekin gunerokotasunean dauden irakasleek, profesionalek, langileek, familiarek... esku hartzeko erabiliko diren teknika ezberdinen informazioa izan beharko dute, horrela, haurren ikaste prozesua hobeto izango delako.

Honekin batera, familiaren inplikazioa ezinbestekoa da, eskolan lantzen dena etxean ere landu dezaten. Proiektuak lan egiteak, familikoek proposamenak aurrera eramateko aukera ematen digu eta gurasoen inplikazio maila handiago bat lortu daiteke.

Haurren egoera emozionala kontuan izatea ezinbestekoa dela ikusi dut, izan ere, egunero ez dute animo bera eta ez dute lanerako gogo bera izaten. Horregatik, garrantzitsua da malgutasuna izatea eta saioak programaturik egon arren, aldaketak egiteko aukera izatea, proiektuek hau ahalbidetzen digutelarik.

Gai honekin eduki desberdin asko landu daitezkeela konturatu naiz, eta nahiz eta proiektua interesgune zehatz batean zentratua egon, bestelako gaiak ere jorratzeko askatasuna ere badago. Honekin loturik, proiektu hau 3 urteko haurrentzat zuzenduta egon arren, egokituta beste ziklo zein mailatan ere landu daitezkeela uste dut.

Gaur egun, gero eta jende gehiago bizi da hirietan eta herrietan bizi direnak alde batera utzi dute baserriko mundua. Honek, gauza guztiak bezala, alde positibo eta negatiboak ditu. Baina, haurren zentratuz, baserri mundua ezagutzeko aukera mugatu zaiela uste dut.

Baserrietan bizi direnak edota baratze bat dutenak, beren buruei ez diete galdetzen jakiak nondik datozen edo zer nolako prozesu eta garapena duten. Haiek,

egunerokotasun batean ikusten dute. Baratzean produktuak landatu, hazitzen ikusi, bildu eta jatorduan jan. Horregatik, egun, gero eta eskola gehiagotan dute baratzea.

Lan hau egiteko, lau ikasturtetan ikasitako guztia birpasatu dut eta nahigabe ere kontzeptu ezberdinetaz gogoratu naiz. Pertsonalki, errepasso moduko bat izan da.

Ikas prozesuan zehar ikasitako teoria guztiarekin gauza askotaz ohartu naiz. Haurrak behatuz eta ekintza eta jolas desberdinak eginaz, teorian emandakoa hobeto ikustea lortu dut eta ikasitakoa praktikan jarri dut. Ikasitako guztia jakitea lanerako benetan garrantzikoa dela jabetu naiz.

ERREFERENTZIAK

Apunteak

Sáez de Eguilaz, P. (2012). *Natura ingurunearen didaktika*. Iruñea: UPNA.

Hiztegiak

Artez hiztegia: <http://www.hiztegia.net/>

Elhuyar hiztegia: http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp

Google itzultzailea: <https://translate.google.es/>

Legeak

47/2009 Foru Agindua. Nafarroako Haur Hezkuntzan ebaluazioa arautzen duena. (2009).

51/2007 Foru Agindua. Nafarroako Haur Hezkuntza arautzen duena. (2007).

23/2007 Foru Dekretua. Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzaren curriculuma ezartzen duena. (2007).

Liburuak

Malaguzzi, L. (2001). *Educación infantil en Reggio Emilia*. Barcelona: Octaedro.

Sensat, R. (2006). *Lóczy, educación infantil*. Espainia: Octaedro.


Web orriak

<http://es.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Portada>

<http://didacticaeducacioninfantil.wikispaces.com/Reggio+Emilia.+Loris+Malaguzzi>

ERANSKINAK

I. Eranskina. Fruta margotu eta ezaugarriak aipatu.



Karratu barruan nahi duzun fruta marraztu. Gero, fruta honen ezaugarriak aipatu:

IZENA:

KOLOREA:

FORMA:

NEURRIA:

II. Eranskina. Fruten olerkia 1.

Fruta askotarikoak

Kolore desberdinetakoak

Zapore ezberdinetakoak

Frutak, frutak, guztiak osasuntsuak!

III. Eranskina. Fruten olerkia 2.

Sagar gorri gogorra

Laranjekin zukua

Platano hori gozoa

Denekin meriendako batidoa!

IV. Eranskina. "Baratzeko frutak" ipuina.




FRUTA EZBERDINAK BARATZE BATEAN
BIZI ZIREN







BARATZEAN SARTZEAN, ZUHAITZ
BATEAN, LARANJAK ZEUDEN.
FORMA BOROBILDUNAK ETA
LARANJA KOLOREKOAK ZIREN.










FRUTAK ELKAR EZAGUTZEKO FESTA BAT EGIN ZUTEN. PRIMERAN PASA ZUTEN ETA OSO LAGUNAK EGIN ZIREN, BERAIEN ARTEAN ERRESPETU HANDIA BAIT ZEGOEN.






BAINA, BAPATEAN, FRUTA GUZTIAK LO ZEUDELA, GIZON BAT ETORRI ZEN ETA FRUTA BATZUK HARTU ZITUEN.












V. Eranskina. Margotzeko fitxa 1.




VI. Eranskina. Margotzeko fitxa 2




VII. Eranskina. Margotzeko fitxa 3.




VIII. Eranskina. Margotzeko fitxa 4.



IX. Eranskina. Margotzeko fitxa 5.

X. Eranskina. Margotzeko fitxa 6.



XI. Eranskina. Margotzeko fitxa 7.